

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualari, zeina "Hegoaldeko industria eremua" izeneko 25. eremuko erabilera bateragarrii buruzkoa baita

Guardiako udalbatzak, 2016ko uztailaren 14ko ohiko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Lehena: hasierako onarpena ematea Guardiako udal arau subsidiarioen aldaketa puntualari, zeina Guardiako 25. eremu "hegoaldeko industria eremu" izenekoan bateragarriak izango diren erabilerei buruzkoa baita (Guardia, Araba).

Bigarrena: jendaurrean jartzea Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntual hori, Guardiako 25. eremu "hegoaldeko industria eremu" izenekoan bateragarriak izango diren erabilerei buruzkoa (Guardia, Araba), iragarkia argitaratuz ALHAOn eta Arabako Lurralde Historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian; hilabetez egongo da jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta, epe horretan, nolabait erasaten diela uste duten guztiek aztertu ahal izango dute, eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 95. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa).

Guardia, 2016ko abuztuaren 4a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEÓN GARCÍA DE OLANO